



Arabako Audikana anaiek irabazi dute Tolosako XIX. Gazta Lehiaketa

SARIAK ▶ Idiazabalgo Aranburu elkarteak sailkatu zen bigarren eta Elgoibarko Jesus Ansola hirugarren

MAILA ONA ▶ Eskualdeko gaztarik onena Pedro Zuzuarregi tolosarrak eraman zuen; 21 zeuden lehian ▶ 4



Saridunetako batzuk. NEREA LIZARTZA



60 zaldiren eta zaldunen bilgune izan da herria, sei orduko ibilaldia zela-eta

LEITZA ▶ Zaldizaleek aukera paregabea izan zuten atzokoan Leitza inguruan antolatuta zegoen zaldi martxa bertatik bertara ikusteko. Izan ere, 60 bat zaldun bildu ziren, bakoitza bere zaldiarekin, herri inguruko basoetan. Sei orduko ibilaldia egin zuten zaldi gainean. Halaxe zioen antolatzaileetako batek: «Herri txiki-tan zaldiekiko zaletasuna gero eta nabariagoa da». Argazkian, zaldietako bat, ibilaldi ostean atseden hartzen. **INIGO TERRADILLOS** ▶ 7

IRURA ▶

Sanmioletako azken egunean jubilatutak izango dira nagusi

Bazkaria eta mahai jokoak haientzat ▶ 6

TOLOSALDEA ▶

Batzarrera deitu du
AHT Gelditu!
Elkarlanak

Bihar Tolosan izango da, 20:00etan ▶ 5


LANDARRI, S.L
Hilerrien ustiapena eta kudeaketa
Kanposantuko Lanak

- Ehorzketak	- Hilerrien proiektuak	- Panteoiak
- Lurpetik atera	- Hilerrien eraldaketa	- Hilobiak
- Gerakinen lekualdatzea	- Eraikuntza ezberdinak	- Estelak
- Gerakinen errausketa	- Hilobi apaingintza	- Fotozaramiak
- Errausketa zerbitzua	- Hilariak	- Estanpaziozko teknikak

Santa Klara, 1 behe - 20400 Tolosa Bidaxoa kalea, 7 behe - 20100 Errenteria
Tel/Faxa: 943 67 01 14 Tel/Faxa: 943 34 04 67 - 943 51 31 41
Zerbitzu Iraunkorra: 610 552 552 Zerbitzu Iraunkorra: www.landarri.com

zunbeltz



Letxu kalea, 8
TOLOSA
Tel.: 943 67 48 32

Sagardotegi, 2
LASARTE-ORIA
Tel.: 943 36 45 32

zunbeltz@euskalnet.net

ONLY
FREESOUL
Killah
MISS SIXTY
ENERGIE
SKUNKFUNK

UZTURRETIK ▶ AGUSTIN AMIANO

Lizartza, itsasontzi baten



Kaxianok utzi gintuenean, egunen batean pozez kantari etorriko zela bagenekien, hala agindu baitzigun abesti hartan. Baina benetan etorri dena herria bera izan da, pozez kantari, eta dantzari, eta musikari, eta antzezleri... Herri oso bat gizon handi baten izena eta izana zainduz.

Etxekoan ametsetan Kaxiano agertzen denean, beti bezain alai mintzatuko da, beti bezain irribarretsu azalduko da eta maitasun hitz ugari banatuko du. Egunez lagundu egingo du, inor baino lehenago konturatuko da inguruko arnasaz. Eta gauez musikari ekingo dio, bere soinua magalean hartu eta herriko doinuak hedatuko ditu Otsaboraino. Baina doinu horren letra aldatuko egingo da: 'Egin barre, egun baten etorri

naiz, pozez kantari, hitzeko gizona naizela ez al da nabari?'

Herritarren ametsek badute gozoak izateko motiborik. Hainbat ordu eman dituzte askok eta askok lanak txukun prestatzen, ahaztutakoa gogoratzen edota zerbait berria eskaini nahian. Zela berde horretako lau harri haien artean bere burua azaltzen denean, harriztar haren xafak mugitzen hasiko dira, bi besok inguratuta, eta Kaxaren abesti batek alaituko du gaua. Alferrrik saiaturiko da lau harri horietako batean ezkutatzen, bere irudia ezin baitu harriztar handienak ere jan. Herriko frontoia itsasontzi bihurtzen denean, guztiak barruan ikusiko dira, agindu bezala Euskal Herrira etorri dela gogoratuz. Eta bera bertan izango da, ateraldiren batekin, lagunez inguratuta, eskuzabal eta ahogozo.

Guztia mereziko zuen. Astindu dituzue ganbarak eta supazterrak, dantzan jarri dantzariak, elkartu musikariak, zutitu bertsolariak edo etzan antzezleak; lana egiten dakitela erakutsi du Lizartzako herriak. Bejondeizuela!

ASTEKO IRUDIA ▶

IRATXE ETXEBESTE



Azken agurra, Gaztelun, Joxe Mari Aranalderi

I. Etxebeste ▶ Joan den hilaren 24ean hil zen Ibarako bere etxean gaixotasun luze baten ostean, eta aste honetako astelehenean eman zioten azken agurra Joxe Mari Aranalderi bere sorterrian: Gaztelun. Fededun, euskaltzale, irakasle, bertsozale eta idazle fina zen gazteluarra, eta hark urtetan egindako lana goraiatu zuten,

hain zuzen ere, bere aldeko hileta elizkizunera joandakoek. Alderdi ezberdinetako eskualdeko eta kanpoko ordezkari politikoak, bertsolariak, aktoreak, sukaldariak eta hainbat eta hainbat herritar izan ziren Aranalderi azken agurra eman nahi izan ziotenak. Argazkian, hileta elizkizunen ostean sentiarztekoak hilkutxa hilerria eramaten. I. ETXEBESTE

GUTUN@K ▶

Joxe Mari Aranalde, gogoan

Joxe Mari Aranalde hil da. Ezin dut sinistu baina halaxe irakurri dut gaur, irailaren 25ean, egunkarian. Ezin dut sinistu nik esaldi hau ere idatzi dudarik, baina hau ere halaxe da. Ezin dut sinistu ezustean harrapatu nauelako berriak, eta ezin dut sinistu hil-berri horrek, adiskide maiteen hilberriak, noraez eta lanbro itsu bezain tristean sakondurik uzten nauelako. Egia da, heriotza hurbilekoak aztoramendu eta itsutasun handian sartzen nau, urduritasunak gainez egiten dit eta ententimenduen argi ahula tristura ilunera lerratzen dit.

Ekainaren azken asteartean ikusi nuen azkenekoz, Donostiako Alderdi-Eder parkeko aulkietako batean eserita, Herri literatura batzordeko bilera baino lehentxeago. 'Zer moduz, Joxe Mari' nire galderari 'nolabait samar' erantzun, eta, gero hurrengo, 'izerdia mugitu' zitzaiola gaineratu zidan. Oraindik orain ere ezin barneratu dut eritasun azkar baten lehen zantzuak izan zitezkeenik. Bileraren ostean agurtu genuen elkar azken aldiz. Nolako zen Joxe Mari Aranalde? Hizkeraz eta edukiaz nik ezagutu dudana gizonik dotorenetakoa izan da Joxe Mari.

Donostiako Alderdi-Ederreko inguruan zebilela, zenbat aldiz ez ote dute bere ikasle ohiek maitasunez agurtu, zenbat aldiz ez ote du egin geldidune bat bere ikasle ohiek hizketaldi goxo bat egiteko? Bai, erabakitasun handiz, hitzak ondo ebakiz eta esaldiak ondo taxutuz hitz egitea maite zuen. Inor ezagutu badut jauntasuna bere hitz eta egite guztiaren erakutsi duena horixe da Joxe Mari Aranalde.

Baina kontuak honetara, nola laburtu hitz gutxitan Joxe Mariren nortasuna? Euskaltzalea orpotik bururaino, euskaltzalea gorputz eta arima. Bertsozale amorratua, eta, bertsolarien artean, Xalbadorren mireslea. Bai, buruz zekizkien *Odolaren mintzoa* liburuko bertso-sailak ez ezik, bera bertso-gidari ibilitako garaiko bertso zein gertaera asko eta asko. Idazleetan, nola ez, *Orix*e eta Lizardi zituen begi-niniko. *Orix*e-ren iloba zen Joxe Mari Aranalde eta *Orix*e-ren hilaurreko urteetan ere bera izan zuen zaindaria. *Orix*e-ren gaineke berri zehatzenak bere iloba Joxe Mari zekizkien esan behar ote dut, begi-bistakoa bada ere? Haren santu hartu edo idazle

kutunak aipatu baditut ere, ez dezazuela pentsa iraganean inguratua eta ainguratua zegoenik gure Joxe Mari.

Ez dut ezagutu inor, euskal kulturari, bera bezalaxe egunean eguneko aldizkari, egunkari eta berrien preskizian egon den euskaltzale suharririk. Are euskal idazle gazte eta berrien azken lanak irakurtzen zituen. Eneko Bidegainen eleberriak, Bernardo Atxagaren eleberri zein ipuinak, Iban Zalduearen ipuin liburuak, noraez eta lanbro itsu bezain tristean sakondurik uzten nauelako. Egia da, heriotza hurbilekoak aztoramendu eta itsutasun handian sartzen nau, urduritasunak gainez egiten dit eta ententimenduen argi ahula tristura ilunera lerratzen dit.

Ekainaren azken asteartean ikusi nuen azkenekoz, Donostiako Alderdi-Eder parkeko aulkietako batean eserita, Herri literatura batzordeko bilera baino lehentxeago. 'Zer moduz, Joxe Mari' nire galderari 'nolabait samar' erantzun, eta, gero hurrengo, 'izerdia mugitu' zitzaiola gaineratu zidan. Oraindik orain ere ezin barneratu dut eritasun azkar baten lehen zantzuak izan zitezkeenik. Bileraren ostean agurtu genuen elkar azken aldiz. Nolako zen Joxe Mari Aranalde? Hizkeraz eta edukiaz nik ezagutu dudana gizonik dotorenetakoa izan da Joxe Mari.

Donostiako Alderdi-Ederreko inguruan zebilela, zenbat aldiz ez ote dute bere ikasle ohiek maitasunez agurtu, zenbat aldiz ez ote du egin geldidune bat bere ikasle ohiek hizketaldi goxo bat egiteko? Bai, erabakitasun handiz, hitzak ondo ebakiz eta esaldiak ondo taxutuz hitz egitea maite zuen. Inor ezagutu badut jauntasuna bere hitz eta egite guztiaren erakutsi duena horixe da Joxe Mari Aranalde.

JABIER KALTZAKORTA ▶ BILBO

Lizartzatik, eskerrak

Kaxianoren omenaldiko batzorde antolatzailearen partetik, gure eskerrik beroenak eman nahi dizkiogu herritar nahiz kanpotar parte-hartzaile guztiei. Omenaldian zuzenki diru laguntzaz, ikusle modura edo bultzatzaile bezala aritu zineten guztiei. Mila esker. Denon artean eskaini ahal izan dizkiogu Kaxianori honelako ekimen herrikoierik ikusgarriak. Mereziaz zituen, eta merezi izan duelakoan gaude. Honelako ekimenak herrian sortu duen mugimendua eta giroa guztiotzat mesedegarri eta aberasgarri izan delako.

XABIER IPARRAGIRRE, ARANTXA ARROSPIDE, IÑAKI ZUBELDIA ETA SAGRARIO ZINKUNEGI ▶ LIZARTZA

**IZAR ARREGI ▶
PSIKOLOGOA****«Barne borroka izaten du gazteak»**

UROLA KOSTAKO HITZA

I. Garcia ▶ Bidegoiango XVI. Kultur Astearen gazte- eta gurasoen arteko harremanen inguruan aritu dira Urola Izadia elkarteak. Bertako partaide da Izar Arregi psikologoa.

Gazteei buruz hitz egiten aritu zarete. Zein da ematen duzun mezua?

Gazteak bizitzako une zail bat bizitzen du. Ez da umea sentitzen eta ezta heldua ere. Identitate berri bat sortu beharra izaten du eta horrek barne borroka bat sortarazten dio.

Horren aurrean, zer egin behar dute gurasoek?

Guraso batzuk oso gainean egoten dira. Beste batzuk, berriz, ez diote behar bezalako garrantzia ematen. Nolabait, oreka bat lortu behar da bi mutur horien artean. Gazteek arauak gaitzitzen saiatzea normalean da. Gurasoek babesa eman behar diote, hor daudela esan, eta bi gurasoen artean ezarritako arauak betetzen lagundu. Familia bakoitzak bere izaera du eta, beraz, irtenbideek ere bakoitzarenak izan behar dute: ez dago formula magikorik. Bestalde, oso garrantzitsua da gazteei beraien egindakoari errekonozimendua ematea.

EZBAIAN ▶ Joan den astean zendu zen Joxe Mari Aranalde apaiz gazteluarra, eta samina eragin du eskualdean bere heriotzak. Bertsozale eta idazle, gustukoen zituenetan bidelagun izan dituen bi lagun iritziak jaso nahi izan ditu HITZAK

TXOMIN GARMENDIA (IDAZLEA) ▶**Aranalde oroitzuz**

On Joxemari Aranalde zenari buruz, zerbait idatzi ote nezakeen erregutu didate HITZA eguneroko honetarako eta nere ezerezean saiatuko naiz ahalegi-na egiten, borondaterik onenez.

Meza-Berria eman ondoren lehenengo herria Arama izan zuen, eta han ezagutu nuen nik San Martin egun batean, 1959eko urtean. Hark 26 urte zeuzkan orduan, eta nik 25. Herriko festak zituztelarik, Agirre eta biok bertsoeara joan ginen, eta egun ederra igaro genuela gogoan dut. *Orix*e, izen handiko gizon hura, ordurako bere etxean zeukan Aranaldek eta gaixotasun batekin zegoelarik, oroitzen naiz nola joan ginen bere logelara eta bertso bana nola kantatu genion. Beraz, bai *Orix*e eta bai Aranalde, egun batean ezagutu nituen.

Bertsolariak haruntz eramateko arrazoi xebebre bat izan zen: jai horietan dantza lotuan ibiltzeko baimena iritsi zuten gazteek

eta zaharrentzat ere zerbait egin beharko zela-eta bertsolariak eraman.

Arten sermoi lotzak baziren han eta hemen dantza lotu edo baitse horren kontra; nire ustez Aranalde zena ez zen nekatuko lan horretan.

Handik urte batzuetara, apaiz lanetatik eta irakaskuntzatik aparte, bertso munduan sartu zen Aranalde: gai-jartzaile, txapelketak antolatzen, epaimahaiko... Bertso pare bat edozein neurritan moldatzeko ere ez zuen inoren beharrik. Eta, euskara ere nork hark bezain mendean? Egia da hark zuen gozotasuna ez dela inon ikasten, horrek berez etorri behar du eta kito. Xalbador baten bertsoari ere, adibidez, nork atera die Aranaldek bezalako zukurik? Bere liburuk lekuko. Gaur jakintsu ustetan dabilzan askok badaukate zer ikasia Gazteluko seme harengandik. Bai horixe.

Azken urtetan liburugintzari emana ze-

goenez, Auspoa eta Sendoa argitaletxeekin zituenez hartuemanik estuenak; ni ere etxe horietan ibiltzen naizenez, maiz bilduko ginen elkarrengana. Esan ohi da apaizak eskatzen hobeak direla ematen baino; Aranalderengatik ez zegoen horrelakorik esaterik: Sendoara zihoan bakoitzean han eramango zuen bere poltsan denontzako hamaiketako. Behin baino gehiagotan esan nion: «Honelako apaizik ez dugu ezagutu oraindik».

Zer gehiago esan? Nik esan gabeak beste batzuk esango zituzten, edo esango dituzte. Goza beza betiko zoriean gure Joxe Marik.

Aranalde zen hainbat alderdi / ta grazi berekin zuna, / handia izan da euskaldunetan / utzi dun goibeltasuna. / Jaunaren deia izan zularik, / eman zion erantzuna; / ta orain zeinek bete behar du / hark utzitako hutsuna?

FELIX IRAZUSTABARRENA (BERTSOZALEA) ▶**Entzuten ere bazekien...**

Epaille lanetan elkartu nitzen Jose Mari Aranalderekin lehendabizikoz. Saioren batean aurkezle lanetan ikusitako edo ezagutzen nuen, baina nik lehen aldiz bertso epaile lana hartu nuenean alboan kide izan nuen Joxe Mari. Ibarran zen, 1992an uste dut, Ezeizatar Eusebio sariketa bat, eta nik hasi berriaren lotsa izan arren, goxo hartu ninduela gogoraten dut. Gerotik lan gehiago egin ditugu elkarrekin, urtero *Orix*e bertso-paper lehiaketako epaimahaian. Alegiako Intxurre Elkartearen batzen ginen Mikel Mendizabal eta hirurok lanak aztertzeko, eta benetan gogo handia izaten nuen arratsalde hura ailegatzeko. Asko ikasteaz gain, bere kontuak entzutea gustatzen zitzaidan, garai bateko kontuak gozotasunez, bere bertsolari kuttunak aipatzean, Xalbador eta Amuriza batez ere, oso indartsu... Solasaldirako aparta zen, baina uste dut horretarako ez dela bakarrik hitz jario dotore eta oparora eduki behar, entzuten ere jakin behar dela. Eta horretan zen oso ona Joxe Mari, besteak ere, nire iritzi eta kontu apalak kasu honetan, aintzat hartzen zituena. Eta ezagu-

tza horretan gehien harritu ninduen, gai guztietan, euskara, bertsoa... aurrera begiratzeko zuen joera izan zen. Beharbada gazteekin harreman handia zuelako.

Bertso munduan pieza inportantea izan da Aranalde, lan mota asko bete ditu antolatzaile, gai-jartzaile, aurkezle, epaile, biltzaile, liburu egile... Arlote eta baserritarren gauza izateatik plazara salto egitean Aranaldek beste askorekin batera prestigioa eman zion bertsolaritzari. Eta batez ere 70eko hamarkada bukaeran, orduan ere ez bakarrik noski, Euskaltzaindiaren babesean gerora bertsolaritzaren aldaketan mugari bihurtu den txapelketa antolatzaile ekin zion. Gai-jartzaile taldean, epaile... izan genuen orduan, Amurizak txapela jantzi zuen 1980 hartan.

Hogeita bost urte betetzen zirela-eta *Hitzetik hortzera* telebista programarako elkarrizketa egin nion lurreamendin asko ez dela eta oraindik bizi eta biziarazi egiten zituen orduko momentuak, bertsolaritzak une hartan hartu zuen bide aldatetaz hitz egin zigun. Eta horrelako gertakizunez gerora konturatzeko beharbada ez da zaila. Orain inork ez du za-

lantzan jartzen hura, baina Joxe Marik finalaren hurrengo egunean idatzi zuen itxaropen berri bat sortzen ari zela bertsolaritzaren etorkizunean. Orduan eztabaida sutsuak egon arren, berak aurrera begirako apustua egiten zuen.

Azken urteetako bertso historiaren beste gertakizun nagusienetako batean ere jakin zuen aurrera begiratzeko, asmatzen zein zen bere eginbeharra. 1986an Euskaltzaindiaren txapelketak antolatzeak haustura hartan, gero Bertsozale Elkartearen izango zen sorrera hartan, bera Euskaltzaindiako ibaiertzean, eta seguru asko minduta egonda ere, bere lekuan egoten jakin zuen.

Horregatik uste dut batez ere jokabide zintzokoa izan dela, jokatzeko modu bera azalduz arlo guztietan. Ez ditut aipatu berak egindako bestelako lanak, liburuak, Xalbador ezagutarazi digula... baina hori egun hauetako kronika askotan ikusi dugu. Galdu dugun honetan, bertsolaritzak Aranaldekin asko irabazi duela aipatu nahi nuen. Beraz, eskerrik asko Joxe Mari, eta doluminak sendiari, gertu zein urrutiago daudenei. Animo!

iragarki laburrak ▶

Gidariak. Hurrengo deialdiak: Donostia, Eusko Jaurilaritza. Astearen 35 ordu. Informazioa doan. 943 65 01 93.

Haur eskola publikoak. Haur zaintzaileak, bereziak, adinekoak eta hezitzaileak behar dira. Lanaldia,

astelehenetik ostiralera. Informazioa doan. 943 65 01 93.

Garbitzaileak. Lan finkoa: eraikin publikoak, ikastebeak, ospitaleak. Astelehenetik ostiralera, 08:00etatik 15:00etara. Informa zaitetz 943 65 01 93.

Correos. Correos-ek langileak behar ditu honako lanetarako: banaketa, sailkapena eta bezeroari arreta. Informazioa doan. 943 65 01 93 telefono zenbakira deituta.
Administrari laguntzaileak. Plaza

libreak daude udalberako. 35 orduko asteak. Informazioa doan. 943 65 01 93.
Administrari laguntzaileak. Hurrengo deialdiak: Beasain, Bergara, Soraluze, Mutriku, Zizurkil, Mendora eta Anoeta. Astelehenetik

ostiralera, 08:00etatik 15:00etara. Informazioa doan 943 65 01 93 telefono zenbakira deituta...
Laborategiak. Plaza libreak. Teknikoak, ikertegiko laguntzaileak, Eusko Jaurilaritza. Informazioa doan 943 65 01 93.

AZOKA ▶

Perretxiko zerrenda ikaragarria atzoko azokan

Mendian berriro hasi da perretxiko kolpea eta hori atzoko azokan ikaragarri nabari zen

PABLO ALBERDI

Azokoa azoka egun animosoa izan zen. Eguraldia lagun zela, erosle askok aukeratu zuten Zerkausira joatea; ondorioz, produktu asko saldu ziren. Perretxiko eskaintza handia izan zen; mendian perretxiko kolpea hasten ari da eta Zerkausia horren isla zen. Onddo, ziza hori, edo gibelurdinez gain, nikaloak, senderuelak, hildakoen tronpetak, pardillak, galanpernak... izan ziren. Horiek guztiak kiloa 18 euroren truke saldu ziren. Gorringoak ere izan ziren 30 euroren truke.

Berdura plazan ziklamen mini landareak ikusi genituen berrikuntzen artean, 3,5 eurotan saldutakoak. Baratzerako landareen postuetan, lehenengo udaberriko tipulak izan ziren. Hauek 2,5 euroren truke saldu ziren ehunekoak.

AZOKA ▶

	merk.	gares.
Berdura Plaza		
Krabelina	4,80	-
Gerania	1,90	2,50
Perrexila	0,05	0,06
Erromeroa	4,00	6,00
Bertako produktuak		
Onddoak	10,00	22,00
Gaztaina	2,20	2,50
Antzarra	11,00	12,00
Porrua	1,00	3,00
Azenarioa	1,20	3,00
Produktu ekologikoak		
Sagarra	2,00	3,00
Dilistak	2,40	-
Arroza	1,90	2,20

GAZTA LEHIAKETA ▶

Arabara joan da XIX. Gazta Lehiaketako lehenengo saria

Jende ugari bildu zen atzokoan Beotibarren Lizardi elkarteak Juanito Zabalaren oroimenez antolatzen duen lehiaketan



Lizardi elkarteak antolatutako Gazta Lehiaketa zela eta, jende ugari bildu zen atzo Beotibarren. NEREA LIZARTZA

NEREA LIZARTZA

Atzo egin zuten Juanito Zabalaren oroimenez Lizardi elkarteak antolatzen duen Tolosako Gazta Lehiaketa. Aurtengoan XIX. edizioa zuen. Guztira 21 gazta aurkeztu zituzten; horietatik 13 Gipuzkoakoak ziren, 3 Nafarroakoak eta 5 Arabakoak. Goizeko bederatzietan eman zioten hasiera lehiari eta eguerdiko ordubatera bitartean jende andana hurbildu zen Tolosako Beotibar pilotalekura.

Bi fasetan banatu zuten lehiaketa; lehenengoan, hamai-ka gazta aukeratu zituzten finalerako. Bigarren goan, berriz, bost irabazleak izendatzeko lanetan buru-belarri ibili ziren

SAILKAPENA ▶

XIX. Gazta Lehiaketa.

Izena	Herria
1. Audikana anaiak	Gereñu
2. Aranburu elkarte	Idiazabal
3. Jesus Ansola	Elgoibar
4. Aixtra Sociedad Civil	Araia
5. Galtzata elkarte	Oiartzun

epaimahaiko kideak. Tartean, euro erdiaren truke, finalerako sailkatuak izan ez ziren gazten pintxoak baxoerdiarekin banatzen zituzten. Horrela, publikoak lehiakideen maila ikusteko parada ere izaten du.

Zortzi pertsonak osatzen zuten epaimahaia, hala nola, Joseba Agirianok, Angel Oruek,

M. Gorrotxategik, Marta Albi-suk, Mari Carmen de Vegak, Roberto Ruizek, Pedro Ruiz Elizondok eta Jesus Salmeronek. «Lan zaila» izan zuten erabakia hartzen. Dena den, azkenean puntu baten aldearekin besterik ez, Audikana anaiak irten ziren garaile.

Eskualdekoak ere baziren parte-hartzaileen artean; Orixako Oikin Txiki-koak, Berastegiko Andres Etxeberria eta Tolosako Pedro Zuzuarregi. Gainera, azken honek jaso zuen Tolosaldeko gaztarik onenari eman ohi dioten saria; Juanito Zabalaren alargunak banatu zizkion oroigarria eta 90 eurotako ordainsaria. Sailkapen nagusian ez zegoen eskualdeko lehiakiderik.

AUDIKANA ANAIAK ▶
IRABAZLEA

«Maila ona egon da, baina, oso antzekoa»



NEREA LIZARTZA

Pozik ageri zen atzo XIX. Gazta Lehiaketako irabazlea. Ez zuen espero, baina, bazekien parte hartzen zuen momentutik suertatu zitekeena zela. Gehiagotan parte hartua da lehiaketa honetan; lehenengo saria ere irabazi zuen beste batean.

Esperotako saria al da?

Ba, egia esan ez. Banekien nahiko gazta ona nekarrela, baina ez nuen irabazterik espero. Gainera, lehiaketa hauek abentura bat bezalakoak dira, inoiz ez baitakizu zer gertatuko den.

Parte hartzen duzun lehenengo aldian al da?

Ez. Beste urte batzuetan ere parte hartu izan dut. Gainera, hainbat sari ere irabaziak ditut lehiaketa honetan, baita lehenengoak ere. Bestalde, Euskal Herriko beste lehiaketa batzuetan ere parte hartzen dut eta horietan ere sari batzuk irabaziak ditut.

Maila handia ikusi al duzu?

Bai. Oso maila ona zegoen. Dena den, parte-hartzaile gehienok maila antzekoa ekarri dugula uste dut.

HITZA **txokoa** lagunena

'Lagun ezazu HITZA laguntzen'

▶ HITZARI 45 euroko diru laguntza ematen dioten harpidedunek HITZA egunero jasotzeaz gain **ABANTAILA EZBERDINAK** izango dituzte; harpidedunen txartela izango dute eta, besteak beste, HITZAK egiten dituen zozketetan parte hartzeko aukera izango dute.

▶ HITZAren laguntzaile izan nahi baduzu, deitu **943 30 43 46** telefono zenbakira.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZA laguntzen duten harpidedunen artean zozketak astero

AHT ▶

Batzar irekira deitu du Tolosaldeko AHT Gelditu! Elkarlanak

Bihar bilduko dira, 20:00etan Tolosako Kultur Etxean, urrian egingo dituzten bi ekimen nagusien inguruan hitz egiteko

IRATXE ETXEBESTE

«Tolosaldeko AHT Gelditu! Elkarlanak taldeak eskualdeko erakunde, gizarte talde eta baita herritar guztiei ere, bihar Tolosako Kultur Etxean 20:00etan egingo den hurrengo batzarre- ra etortzeko deia egiten du, urrirako antolatu diren bi ekimen nagusiak eskualdetik bultzatzeko helburuarekin». Gisa horretara egin dute Abiadura Handiko Trena proiektuaren aurkako taldeko kideek bilkura agertzeko deia.

Izan ere, AHT Gelditu! Elkarlanak bi ekimen nagusi antolatu ditu hil honetarako AHTren aurkako mugimenduari «indar berria» emateko: «Batetik, hilaren 13tik 21era hainbat erakunde, gizarte mugimendu eta herri kaltetuetako bizilagunek Aldarrikapen Gunea antolatutako Gasteizen, Eusko Jaurlaritzako eraikinaren aurrean, eta bertan, bederatzi egunetan zehar *Eusko Jaurlaritzak: AHT gelditu! Inposaketarik ez!* lelopean Abiadura Handiko Trenaren proiektua agerian uzteko eta salatzeke zerbait ekitaldi eta mobilizazio egingo ditugu».

Bestalde, eta Aldarrikapen Gune horri amaiera modukoa emateko, manifestazioa antolatu du AHT Gelditu! Elkarlanak hilaren 22rako. Bilbon izango da protesta ekintza, 17:30ean Jesusen Bihotzaren plazatik abiatuta, «gizarteak AHTren inposaketari ez esan diezaion, behar bezain ozen eta indarrez». Hori dela-eta «manifestazioan parte hartzeko ahalik eta jende gehien bil dadin deia zabaltzen dugu», adierazi dute proiektuaren aurkako taldeko kideek.

Horrenbestez, nahitaezkoa deritzaie «AHTren inguruan eztabaida eta oposizioa hedatzen segitzeari». Hori egitea ezinbesteko zeregina dela dio-



Urrian, AHTren aurkako X. akanpadako bileretako bat. JULEN GOIKOETXEA

EGITARAUA ▶

Bi ekimen nagusi antolatu dituzte urrirako: Aldarrikapen Gunea Gasteizen, Lakua Gasteizen, Eusko Jaurlaritzako eraikinaren aurrean, eta bertan, bederatzi egunetan zehar *Eusko Jaurlaritzak: AHT gelditu! Inposaketarik ez!* lelopean Abiadura Handiko Trenaren proiektua agerian uzteko eta salatzeke zerbait ekitaldi eta mobilizazio egingo ditugu».

ALDARRIKAPEN GUNEA

Hilak 13, osteguna.

Gipuzkoako herriak.

Hilak 14, ostirala. EHNE eta baserriar kaltetuak.

Hilak 15, larunbata. Talde ekologistak.

Hilak 16, igandea. Gizarte mugimenduak.

Hilak 17, astelehena. Talde politikoak.

Hilak 18, asteartea. AHTren aurkako asanblada.

Hilak 19, asteazkena. Sindikatuetak.

Hilak 20, osteguna. Gazte erakundeak, Gaztetxeak...

Hilak 21, ostirala. Bizkaiko herriak.

MANIFESTAZIOA

Hilak 22, larunbata. AHTren aurkako manifestazioa Bilbon, 17:30ean Jesusen Bihotzaren plazatik abiatuta Aldarrikapen Guneari amaiera emateko.

te AHT Gelditu! Elkarlanak taldeko kideek, «desarrollismoaren eragin suntsitzaileak geldiarazi, eta egungo garrio eta gizarte eredu xahutzailea errotik aldatuko badugu».

«Gauzak horrela, Tolosaldeko AHT Gelditu! Elkarlanak taldeak eskualdeko erakunde, gizarte talde eta herritar guztiei biharko batzarre- ra etortzeko deia egiten die».



TOLOSAKO UDALA

2005eko Ekonomi Jardueren gaineko Zergari dagozkin errezeboak borondateko ordainaldian daudela, jakinarazten dugu. Hauxe da epea: 2005eko urriaren 3tik 2004ko azaroaren 10ra.

2005eko irailaren 4an baino lehen banku edo Kutxan helbideratutako agiriak, zergadunak esandako kontuan sartuz kobratuko dira zuzenean, Helbideratzeke daudenak zergadunaren etxera bidaliko dira posta bidez urriaren barnean, berak emandako helbide fiskalera.

Etxean jasotako errezeboak ordaintzeko jo Kutxa, Euskadiko Kutxa edo Banco Guipuzcoanora, Errezeboak erakustearrekin nahikoa da. Hauxe dakarkizuet gogora, ordaintzera joaterakoan, hemendik aurrerako errezeboak banku edo aurrezki kutxa horietan helbideratzeke aukera duzuela.

Urriak 20rako zergadunak ez badu jaso bere helbidean agiria, Tolosako Udalako Zerga Bilketak bulegoan eska dezake.

Goian esandako epe hori amaitu ondoren, premia bideari ekingo diogu, eta ordaindu ez diren errezebo horiek errekegaro izango dute, atzerapenagatik sortutako interesak eta kostoak ere zergadunari kobratuko zaizkie.

Tolosan, 2005e4ko irailak 28an • ALKATEAK

ipuin harrigarriak

Herri literaturaz gozatzeko kondairak, ipuinak, istorio bitxiak

- 1 Ipuin harrigarriak 1
Kastillopranko
Biribil-biribilak
- 2 Ipuin harrigarriak 2
Dar-dar
Ondo eginaren ordaina
- 3 Ipuin harrigarriak 3
Gatza ala erregea
Biziak ezagutzeko hila
- 4 Ipuin harrigarriak 4
Zapatari asmatzailea
Zerraldan bizirik
- 5 Ipuin harrigarriak 5
Ikazkina eta heriotza
Besterik ez bezalako kapela
- 6 Ipuin harrigarriak 6
Estudiante Tonto
Ezkonberriak
- 7 Ipuin harrigarriak 7
Kanillo arrantzalea eta Kanillotxiki
Zeruko berriak
- 8 Ipuin harrigarriak 8
Pepetxu eta Popatxu
Kardulaza salatari

**Urriaren 8tik aurrera
ASTEBURUETAN**

berria

+ 3 €

Laguntzaileak

Euzko Legebiltzariak

Bizkaia

Banataile bat
behar da baserriar
produktuak banatzeko

Lurlan baserriar elkarteak
943 69 20 54

BIDEGOIAN ▶ XVI. KULTUR ASTEA

Haurrei eskainitako eguna

Marrazki lehiaketa, 'Hitzak patriketan' eta txokolatada, atzokoan

I. GARCIA

Bat, bi, hiru... 30 haur inguru hurbildu ziren atzo Bidegoian-go frontoira marrazki lehiaketan parte hartzera. Orria eta margoak hartu eta banaka edo taldeka abiatu ziren herriko txokoetara, buruan zeukaten marrazki hori gauzatzera. Batzuk zerbait zehatza marraztu zuten: ikastola, adibidez. Beste batzuk imaginazioa izan zuten inspirazio iturri eta burura etorritakoa marrazteari ekin zioten.

Sariak ere banatu ziren.

Epaile gisa Manolo Arretxe margolaria aritu zen eta honako izan zen bere epaia: bost urte arte Goreti Aburuza izan zen lehena; 5-8 urte bitartekotan Oinatz Aburuza izan zen irabazlea; 8-12 urtekoen artean Iraitz Urdanpileta izan zen lehen saria jaso zuena eta hamabi urtetik gorakoen artean Alazne Senperena izan zen irabazlea.

XVI. Kultur Astearen azken eguna izan zen atzokoa, haurrei zuzendutakoa. Aipatutako marrazki lehiaketa bukatu ondoren *Hitzak patriketan* ikuski-

zuna eskaini zuen Txalo FM taldeak. Arratsaldean hoztu egin zuen eta oso ondo etorri zen Kultur Asteko azken ekitaldia: txokolatada. Barrena berotuta amaitu zuten haurrek beren eguna.

Marrazki lehiaketa antolatzen ari ziren gurasoak gustura zeuden Kultur Astearekin, baina ekitaldietara beti jende berdina joaten zela azaldu zuten. «Nahiko genuke jende berria ere etortzea. Gauza interesgarriak egiten dira eta uste dugu merezi duela parte hartzeak», adierazi zuten.



Atzoko marrazki lehiaketan parte hartu zuten zenbait haur. I. GARCIA

Apaizari agurra

Bestalde, gaur goizeko mezan, 10:00etan hasiko dena, agur-omenaldia egingo diote herri-

tarrek Inazio Agirre apaizari. Juan Maria Uriarte gotzaia ere bertan izango da. Agirre lau urtetan aritu da Bidegoianen apaiz lanak egiten.

IRURA ▶ SAN MIGUEL JAIK

Sanmielak azkenetara iritsi dira

Herriko jaietako azken egunean jubilatua izango dira protagonista

IMANOL GARCIA

Gaur izango dute irurarrek sanmielez gozatzeko azken aukera. Jubilatua izango dira protagonista, beraietzako prestatuko ekitaldiak egingo baitira: bazkaria, mahai jokoen sari banaketa eta ondorengo dantzaldia.

Asteburuak, bestela, musika giroa utzi du Iruran. Ostiral gauean herrikoek hasi zuten ikuskizunen txanda *play-back* jaialdiarekin. Ez zen eserleku bat bera ere hutsik gelditu frontoian eta ederki pasatu zu-

ten ikus-entzuleek. Ondoren A Matraca Perversa-ren eta Banda Basotti-ren kontzertua izan zen plazan eta jendea erruz bildu zen. Atzo gauean Mal de Ojo taldearen txanda izan zen.

Baina talde horren kontzertua ez zen izan atzoko ekitaldi bakarra. Goizean, esaterako, pilota partidak izan ziren Trinteketan. Mutilak xarean aritu ziren eta lehen partidaren Alex Irurzunek eta Erik Bustosek 25-24 irabazi zioten Julen Aizpurua eta Jose Manuel Sanchez bikoteari. Bigarren gauean Ioritz Lazkanok eta Ugaitz



Atzoko ezkonduen dantza-sokaren une bat. I. GARCIA

GAUR ▶

12:00. Meza nagusia abestua: Perossi-ren // *Pontifikala*.

14:30. Jubilatuen bazkaria Zaharren Biltokian. Ondoren, jokoetako sarien banaketa eta dantzaldia jubilatuentzat egoitza bertan.

Mendizabalek 25-5 irabazi zioten Iñaki Leundari eta Alex Bustosi. Neskek palan jokatu zuten eta Bidatz Amenabar eta Igone Gutierrez bikoteak 25-17 irabazi zion Lore Amenabar, Leire Ormazabal eta Miriam Aizpurua hirukoteari. Jolasten jarraitzeko aukera gehiago izan zuten haurrek apar festa-ekin eta puzgarriekin.

Bestalde, ezkonduak ez zioten huts egin dantza-soka saioari eta hasierako aurreku eta desafioaren ondoren, dantzari bakoitzak *axeri-dantza* egin zuten. Ohi bezala, jende artetik bikoteak atera zituzten eta fandangoa, arin-arina eta biribil-keta egingez amaitu zuten dantza saioa.

hilberriak eta urteurrenak ▶

eskela hartzen dira: 19:00ak arte • telefonoa: 943 65 56 95 • emaila: toosaldean@tolosaldeko-hitza.info • Hitza guztietan prezio berean

I. urteurrena
Lurdes Begiristain Jauregi
Guzuzan ginen enbor berena
atzoko dira besteak,
burruta hortan irauango duten
zuhaiztardaska gazteak,
@xokolatada

I. urteurrena Lurdes Begiristain Jauregi

Lagunen lagun,
mendirik mendi,
gauza txikien zalea,
beti ezinik gabiltza, Lurdes,
utzitako hutsunea.

Ximon eta zure lagunak

TOLOSA, 2005eko urriaren 2a



ESKERTZA ▶

Alfonsa Jauregi Maiza
(Goian bego)

Irailaren 13an Bedaion hil zen. **Haren senarra, seme-alabak, bilobak eta gainerako ahaideek** oso eskertzen dizuete samin-agurra bidali zenutenei eta baita ere hiletara etorri zineten guztiei ere.

Bedaio, 2005eko urriaren 2a

BELAUNTA ▶

Eskulan ikastaroa hasiko dute astearte honetan

Urriaren 4an hasita, asteartero arratsaldetan, 17:30etik 19:30era izango da eskulan ikastaroa Kultur Etxean. Bertan pintura, dekorazioa, jostuntza lanak, bainika... jorratu ahal izango dute herritarrek. Parte hartu nahi duenak hilerio 10 euro ordaindu beharko ditu.

BELAUNTA ▶

Bilera zein ikastaro egin erabakitzeko


Abendua bitarte gorputza zaintzeko saioak antolatuta nahi ditu Belauntzako Udalak. Iaz yoga eta aerobik ikastaroak egin zituzten, eta aurtengoa zein egin erabakitzeko bilera egingo dute gai horretan interesa dutenen artean. Urriaren 5ean, 19:30ean Kultur Etxean izango da. Joan ezin dutenek 943 67 00 20ra dei dezakete.

TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112)) Osasuna.

- ▶ **Alegialdea.** Osasun z.: 653212
 - ▶ **Anoeta-Alkiza-Hernalde.** Medikua: 65 23 39
 - ▶ **Asteasu.** Medikua: 692423
 - ▶ **Baliarrain.** Medikua: 889003
 - ▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua: 683361
 - ▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134
 - ▶ **Ibarraldea.** Osasun etxea: 672411
 - ▶ **Ikaztegieta.** Medikua: 653329
 - ▶ **Irura.** Osasun zentroa: 690720
 - ▶ **Leitza.** Osasun z.: 948 510800
 - ▶ **Orendain.** Medikua: 655595
 - ▶ **Orexa.** Medikua: 682228
 - ▶ **Tolosa.**
 - ▶ Anbulatorioa, larriald: 461111
 - ▶ San Esteban: 006800
 - ▶ Gernikako arbola: 006900
 - ▶ Amaroako dispen.: 672637
 - ▶ Asunzion Klinika 675799 - 67 53 90 (larrialdiak)
 - ▶ DYA: 672536
 - ▶ Gurutze Gorria: 674888
 - ▶ **Villabona.** Anbulat.: 006970
 - ▶ **Zizurkil.** Aiztondo zerb: 693930
- Garraioak.**
- ▶ Renfe: 902 24 02 02
 - ▶ Donostiako autobusa: 361740
 - ▶ Tolosaldea bus: 650621
 - ▶ Leitza autobus: 948 221015
 - ▶ Taxia: 670420
 - ▶ Taxia (Leitza): 608 873016
- Besterik.**
- ▶ Ertzaintza: 538820
 - ▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858
 - ▶ Tolargi: 650016
 - ▶ Iurramendi egoitza: 670325
 - ▶ Tolosa gasa: 675320

LEITZA ▶ GIZARTEA



Mendiz 6 orduko ibilaldia amaituta zalditegian hartu zuten atsedena 60 zaldiek. I.TERRADILLOS



Gazteboak ere gerturatu ziren zaldien ikuskizuna ikustera. I.TERRADILLOS



Cowboy janzkerarekin azaldu ziren asko festara. I.TERRADILLOS

‘Cowboy’ eta zaldien bilgune izan da herria

60 lagun inguruk hartu zuten parte atzo egindako elkarretaratzean; sei orduko ibilialdia egin zuten

IÑIGO TERRADILLOS

Cowboy kapelak, botak eta jantziak, zalditegiak, zaldiak, eta *country* eta *rodeo* giroa. Horrelakoak topatzeko ez dago Texas-eraino joan beharrik, atzo Leitza hurbildu baino ez zuen hori guztia ikusi nahi zuenak, izan ere, bigarren urtez zaldiz ibiltzen direnen arteko

elkarretaratzea egin zuten herriari Perra peñak antolatuta. Denera 60 zaldun inguru bildu ziren goizean Inguruarten sei orduko ibilaldia egiteko helburuz; Arretxene, Guratz, Uitziko gaina, Berutako mendia, Kornietia, Behordain, Putzenborda eta Santakruz igaro zituzten eta Ziraten barrena Maimurren atera ziren errepi-

dera. Leitza iritsi zirenean, herri guztia igaro zuten kalez kale eta handik abiapuntura bueltatu ziren berriro parte-hartzaileak. Antolatzaile lanetan aritu den Jon *Kaskamotz* leitzarrak azaldu zuenez, «herri txikietan zaldiekiko zaletasuna gero eta nabariagoa da; gainera, egun zaldi bat mantentzea ez da le-

hen bezain garestia». Iaz egin zuten elkarretaratzeak ere nabaritu dute hori, pasa den urtean baino jende gehiago bildu baita. «Hurrengo urtean festa handiagoa izatea nahi dugu; *Country* erako festa polit bat antolatuko dugu», dio antolatzaileak. Zaldiz ibiltzea atsegin dutenen artean hitzordu garrantzitsu bihurtzen ari da Leitza, bertakoez gain, Lasarte, Usurbil, Asteasu, Hondarribia edo Lesaka bezalako herrietatik hurbiltzen dira eta. *Toto* usurbildarra da horren adibide; «Andoaindik atzo etorri nintzen Plazaolako bidetik eta bertan egin dut lo; giro oso berezia sortzen da», esan du. Giro berezia izan zen zaldunen artean eta ikuskizun politaz gozatzeko aukera izan zuten herritarrek, atzokoan.

iragarki laburrak ▶

<p>LANA Sukaldaria eta zerbitzaria. Asteburuetarako eta oporren ordezkapena egiteko sukaldaria</p>	<p>eta zerbitzaria behar da. Interesatuek deitu 943 69 19 33 telefono zenbakira. Tabernaria. Neska euskalduna</p>	<p>behar da taberna batean lau orduz lan egiteko. Interesatuek deitu 675 70 11 78 telefono zenbakira.</p>
<p>SALGAI Lanparak. Bi lanpara rustiko salgai. Interesatuek deitu 619 084 343 telefono zenbakira.</p>		



Harpidedunei banatua ▶ 2005eko urriaren 2a, igandea ▶ III. urtea

GAURKO EGURALDIA

goizez



arratsaldez



beroena

16

hotzera

14

BIHARKO EGURALDIA

goizez



arratsaldez



HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA

(zalantzak argitzeako, harpidedun egiteko...)

943 30 43 46

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Alegia. Euskara ikastaroak bihar hasiko dira Kultur Etxean. Izen-ematea, Kultur Etxean bertan egingo da.

Alkiza. EHNAREN tramitazioa egingo dute 11:00etatik 13:00etara.

Ibarra. Belabietan gimnastika erritmikoko ikasturte berria abian da. Izen-ematea, 943 671544, 629 112061, 943 117023 eta 943 019422 zenbakietan.

Leaburu. Euskal dantzak eta gimnastika ikastaroak eskainiko dituzte urrian hasita. Izen-ematea, 943 67 59 31 zenbakian.

Tolosa. Iturritza jubilatuz elkarteak bihar hasiko ditu areto dantza klaseak, 18:30etik 19:30era, Euskal Herria plazako egoitzan.

Tolosa. Gerontologikoa Aldeko Plataformak berriz ere ekingo die, uda ostean, asteroko bilerei eta horietako lehena etzi izango da, 19:30ean, Kultur Etxean, Tolosako Gerontologikoa itxi zutenetik gaurdaino, egoera berriaren berri emateko.

Villabona. Oinkari dantzari taldeak bi ikastaro antolatu ditu: euskal dantzak 3 urtetik gorako haur eta gazteboentzat eta fandango eta arin-arina adin guztietakoentzat.

Izen-ematea, Txermin ikastolako ganbaran, 660 13 93 80 telefono zenbakian edo

harremanak@oinkari.net helbidean.

JAIKAI

Irura. 12:00etan Meza Nagusia abestua; Perossi-ren II. Pontifikala. 14:30 Jubilatuen bazkia Zaharren Biltokian. Ondoren, jokoetako sarien banaketa eta dantza dala jubilatuentzat egoitzen bertan.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur

Tolosa. Morant, R. Zabalaretia 1. 943 67 38 49.

Leitza. Plaza, M. Elbarren 36. 112..

Bihar

Tolosa. Bronte, C. Korreo kalea 20. 943 67 60 13.

Areso. Goizueta, F. Loidi Etxea. 112.

IRRATIA

Txolarre irrati, bihar (FM 107.5 eta FM 101.2)

11:00-14:00. Tolosaldeko aholtsa: 11:00etan eguraldia Joxe Landarekin; HITZAREN ERREPASOA, albisteak, oharra...; 12:15ean, agenda; 12:25ean, Tolomendi elkarte kide Imanol Olanok Auvernian (Frantzia) egin berri duten bidaiari irratian ikusitakoak kontatuko dizkigu; 13:00etan, *Ezkutuko koloreak* irrati nobela; 13:15ean, lehiaketa eta disko eskainiak. **19:00-21:00.** Tolosaldeko aholtsa, errepikapena. **22:00-23:00.** *Arkako show* musika saioa. Fm 107.5 101.2.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

AGURRAK ▶



URTE ASKOAN
Mikel Zorionak eta urte askoan Berastegiko familiaren partez.



ZORIONAK
Ima eta Miguel (Tolosa). 25 urte ezkondu zinetela. Zorionak familiaren partetik.

Bertsolaritza bultzatuz

TOLOSA ▶ Kale animazioa izan zen atzo goizean kaleetan; bertsolaritzari bultzadaxoa ematea zuen helburu nagusi



Antzerkia eta bertsolaritza uztartu zituen atzo goizean Kaxkagor taldeak Tolosako kaleetan. NEREA LIZARTZA

ERREDAKZIOA

Bertsolaritza eta antzerkia uztartu ziren atzo goizean Tolosako kaleetan. Izan ere, Bertsolari Txapelketa Nagusiaren harira, Euskal Herriko Bertsozale elkartek Tolosako Udalararekin batera kale animazioa antolatu zuen bertsolaritzari bultzadaxoa emateko asmoz.

Kaxkagor taldea izan zen ikusizun berezia eskaini zuena; lau antzele aritu ziren lanean: hitzez estaliriko bola handia bultzatzen zuena, bertsolari lanetan zebilena, rapea eta kubatarra. Errima bixetik kantatuz eta antzerkia eginez aritu ziren eta kalean zebiltzan herritarrek emanaldi bitxia ikusteko aukera izan zuten. Halaber, une politik es-

kaintzeaz gain, Bertsolari Txapelketaren berri emateko, eta, bide batez, bertara joatera animatzeko ere baliatu zuten antzeleek kale animazioa. Txapelketa final handiaren eguna abenduaren 18an izango du, eta lekua, berriz Barakaldo; eskualdetik, Bixente Gorostidi, Aitor Mendiluze, Jexux Mari Iruzu eta Amaia Agirre ariko dira finalera iristeko lehian.

tasarazteaz eta mikroprozetarako itxako mintegiak

Tolosaldea urriak 6 TOLOSA

Tolosaldea L.H. Institutua

Orduak: 10:00-20:00

Zer egin zabor-postatik libratzeko

Zabor-postak gure postontziak gainekalzen ditu. Birusek, spywareek, adwareek eta phishingek gure sistema informatikoak ariskatu jartzen dituzte. Nola ekidin daituzkeen erakutsiko dizugu kasu praktikoan bidez, eta gainera doakoak eta kostu baxuek diren soluzioak azalduko dizkizugu.

Informazioa eta leku ematea: **943 747 314**
www.ami-berastegi.net
www.gizarteinformatiboa.net

Ambarkoia

Suztuzteak:

euskadi e-gipuzkoa SPRI



NOELIA LATABURU

RETROAREKIN, EROSO!

Jantzietan, osagaietan eta orrazkeretan garai baterako estilora bueltatzeko joera dator aurtengo udazken-negu denboraldirako; erosotasuna bilatzen du gehien erosleak

GARAI BATEKOAK BERRIZ SOINEAN

Helduentzako nahiz gazteentzako jantzieta eta osagaietan retrorako joera nabaria da; eguneroko bizimodurako jantzi erosoak eta urbanoak eskaintzen dituzte aurtengo denboraldirako



Moda ez da emakumeentzat soilik eta mutlek ere aukera handia dute kolore zein estiloetan. A. LARIBAR

ezin esan daitoke aldateta handiegirik dagoenik; larrija, berdea eta marroia dira guztietan nagusi. «Hori bai, betiko moduan beltza da arrakasta gehien izaten duena eta aurtengo jantzieta ere eskaintza ugari dago kolore horretan».

Mutletan, bi estilo


Mutletan kasuan bi estilo beretz daitelke, nerabeek zuzenduriko batetik, eta helduagoentzako urbanagoa dena, bestetik. «14-15 urte bitartekoak arropa zabalagoa eskatzen dituzte, galta zabalak eta letra handietan hurruturlo elasti-koak jantzi dituzte normalean». Adin honetatik aurrerago-koek, berriz, esio urbanoa aukeratu dute. «Betiko galta bakerak, kirol jersiek eta ni-kiak». Alpatzeko da, halaber, gaur egun, mutlek gero eta garrantzia handiagoa ematen diotela modari, hau da, zer dagoen modan eta zer ez jakina gustatzen zaie, eta horren a-bera aukeratu dute jantzi be-herrekoa. Ez bakarrik arropa, osagaiak ondo aukeratu ere, hala nola, zapatak, boltsok edo eta gertziak.

Kakia, marroia eta beltza

Kakia, marroia eta beltza dira kolore guztietan gehien errepikatzen direnak. Eta baita geluzen eskaintzen dituztenak ere, konbinatzeak erazagoak diren bezala, ezin aharu mut-lak «klasikoagoak» direla.

Mutli nahiz neska gastearen

Mutli nahiz neska gastearen modan, marka berdintsuak jarraitzen dute urteak, Ci-marron, Blend eta 2nd Sky, esaterako. «Marka bakotz-koak erabiltzeko, azaldu dute Oñia jantzi denak ardu-radunek. Horrela marroiak, berdeak, larriak, lilak eta mo-reak dira aurtengo erreginak helduagonean jantziak kom-binatzeak garaitzen. «Beltza beti saltezen da ondo, baina aurt-en berdeak ere izan du, aurre-ko urtekin alderatuz gero».



Beroki retroak eta hegazkilaritza iburakoak ikusiko dira aurt-en. L. I.



Marroia eta bakerak, beti modan. L. IBERKALLOS. Beltza eta marroia eramango dira gehien. A. L.

Zapaldu modan

Estilo urbanoa izango da nagusi denboraldi berrian; kalitatea eta erosotasuna bilatzen du gaur egungo erosleak

Arropa ezinbestekoa bada ere, osagaiak berebiziko garrantzia hartu dute azken urteetan. Honen adibide argia dira oinetakoak eta, jantzi moduan, hauek ere moda urbanoarekin bat eginez, kirol txurakoak dira denboraldi bo-netan, izan ere, lehendabizi arropa ezahaten da eta horren arabera jakingo dugu noizko zapatak dotozen.

Emakumezkoetan, «bota ile-dunak arrakastatsuak» dira eta azaldu dute Lizarribar zapata denak arduradunek. Hal-ber, takioak desagertze aldera doaz, «pasa den urteetik hona

Gizonezkoak moda jarraitzen hasiak direla azaldu dute zapatadendako arduradunek; eta horien kasuan ere, egunero erabiltzeko kirol txurako zapak dira gehien eskatuena.

Oinetakoen koloreei dagokionez, aurtengo denboraldian gehien jantzi dorenak kakia eta berberena izango dira, baina beltza eta marroia urteak gehien errepikatzen dituen koloreak dira oinetako denak arduradunen arabera. Geox, Art, Puma eta Clarks dira Lizarribar dendan azpimarratu nahiz izan dituzten markak. ◀



Udazkena iritsi da eta, berarekin batera, udan jantzi ditugun galta motzak, tiradun nikak, oinetakoak... hau da, arropa freskoa eta arina armairuan gordetzeko sasoi. Hottari aurre egiteko beharrezko beroki, jertse eta bestelako osagaiak ordezkatu dituzte hauek, beraz, datoen hila betetzen.

Merkealdien ostean, denboraldi berriko joerak agerian daude Tolosaldeko den-detako erakuslehiotetan. Jen-deak arretaz begiratu ohi dituzte lehen egun hauetan nagusi izango diren koloreak eta est-i-loak, beti ere modan punta-puntian egotea. Hitzak ere sa-konki atertzen dituzte aurtengo be-rikuntzak, eta ondorengo jeroetan azalduko dituzte inku-n-reak nola jantzi jakin dezaten. «Ea dena asmatuta dago moda munduan, eta horregatik jantzen dugu urteetan atera, jo-

IXABEL Haur eta umeentzako jantziak eta osagaiak. Hurre, 16 • TOLOSA • Tel.: 943 67 02 77

ARKUPE ZURE UMEEN DENDA. Hurre, 16 • TOLOSA • Tel.: 943 67 02 77

5+1 Bonoa. Hurre, 16 • TOLOSA • Tel.: 943 67 02 77

ZURE UMEEN DENDA. Hurre, 16 • TOLOSA • Tel.: 943 67 02 77

Berez 44-64 NEURRI BEREZTAK. Talla handia ere moda da. Hurre, 16 • TOLOSA • Tel.: 943 67 02 77

honekin ziber leinopindogia rockmantick. 9005eko udaxen-eguko mozketak eta kolore bilduma berria. Denak ezberdinak, bakarrik. Andre Mari plaza 1, behe TOLOSA. 943 67 22 44. www.honekin.com

FotoGaleria. 5+1 Bonoa. Hurre, 16 • TOLOSA • Tel.: 943 67 02 77

ZURE UMEEN DENDA. Hurre, 16 • TOLOSA • Tel.: 943 67 02 77

KIMETZ GASTE ARROPA. MUTILENTZAT eta NESKENTZAT ARROPA eta OSAGAIETAN ESKAINTZA HANDIA. Nagusia, 23 • TOLOSA • Tel.: 943 67 38 62

FotoGaleria. 5+1 Bonoa. Hurre, 16 • TOLOSA • Tel.: 943 67 02 77

AGERIAN ALA EZKUTUAN, EROSO!

Barruko arropa eroso eta ohial leunekoa da nagusi emakume nahiz mutiletan; orrazkerak ere erosoak eta bere mugimendu naturala errespetatuz eskatzen ditu gehien bezeroak negu honetarako



Gero eta mutil gehiago arduratzen da azpiko arroparekin. I. TERRADILLOS

Agerian daramagun jantzi eta osagaiak bezain garrantzitsua da azpitik jazten duguna. Horregatik, gorpuztera ondo egokitzen eta eroso sentiarazten duten azpiko arropak aukeratzin dituzte emakume nahiz gizonezko, beti ere modarekin bat eginez. Barneko koloreak kanpokoekin oreka lortu nahi dute eta, horregatik, marroiak eta granate tankerako titizorroak, tangak eta kuleroak dira nagusi. Beltza beti du arrakas-

ta, konbinatzeko kolore erraza delako.

Estiloari jaramon eginez gero, parpailak arrakastatsua dira, nahiz eta ohial leunak nagusitzen diren. «Kanpoko jantziak estuak direnez, leuntasuna bilatzen dute emakumeek, azpiko arropa nabari ez dadin», azaldu du Mugar lentzeria arduradunak. Marrandunak eta estanpatuak ere ermaten dira. Emakumeen modarako ere aipamen berezia



Ilearen berezko mugimendu naturala errespetatzen duten orrazkerak eskatzen dira gehien. I. TERRADILLOS

merezi dute, kolore bizikoak eta marrazkidunak izango direnak. «Gona asko erabiliko da denboraldi honetan eta horrek medien garrantzia eta erabile- ra dakar; hori dela eta, biziak eta marrazki koloretsuak izango dira».

Mutilek ere gero eta garrantzia handiago ematen diote azpiko arropa egokia erosteari. «Garai batean amak erosten zizkien beti galtzontziloak mutilei baina orain beraiek arduratzen dira horretaz», azaldu dute arduradunak. Udazken-neguko denboraldirako, bategatik kolore klasikoak dituzte aukeran, hala nola beltza, grisa, granatea eta berde ilunak, eta, «ausartenentzat» bestetik, oso kolore bizikoak.

Guztietan salduenak Calvin Klein markakoak direla azaldu dute. «Boxer itxurakoak gehiago eskatzen dizkigute, slip-ak baino». Gainera, galtzak gerri- tik behera eramaten direnez, agerian geratzen diren kaltzontziloak arrakastatsua izan ohi dira. «Harrigarria bada ere, mutiletan tanga era-

biltzen hasi dira, moda aldatu egiten baita».

«Ohera ere eroso joan nahi izaten dugu», baina moda ahanzi gabe. Gainera, etxe gehienek berokuntza dutenez, ez dira pijama lodiak eskatzen. Bai gizon bai emakume «Beluseko pijamak, etxeko txabusina motzak, koloredunak, jende gazteentzat, pijama irekiak» erosten dituzte. «Egungo pijamak ez dira garai batekoak bezalakoak, etxean egoteko arropa erosoak dirudi, kalean eramateko modukoak».

Orrazkerak ere retroruntz

Bakoitzaren ileko forma, estiloa eta izakera errespetatu behar diren arren, joera hauek jarraitzen dituzte denboraldi honetan: forma eta kolore naturalak, ile leunak eta osasuntsuak. Bestalde, orrazkera agresiboa aukeratzen dituztenak ere badira. «Jendeak ez du argi izaten zer nahi duen eta beti ere bere estiloari jarraiki, aholkuak eman eta hobekien dagoen orrazkera proposatzen

diegu», azaldu du Ainhoa Zumeta, Zute ileapaindegiko arduradunak. Adats luzeetarako joera dago, emakumeetan zein mutiletan, azken hauei zailagoa egiten bazaie ere. Biek ere erositasuna izaten dute aintzat. Ezinbestekotzak jo du ileapaintzaileak norberak duen ilearen mugimendu naturalari jarraitu behar izatea orrazkera hautatzerakoan, «horrela norberak bere ilea ondo mantendu ahal izateko, astero ileapaindegira joan behar ez izateko».

Arroparen eta osagaien joerak mantentzen dira hemen ere, hau da, 20. hamarkadarantz eta retrorantz doa, beti ere kimika eta bestelako teknika berriak baliatuz. Haatik, urtetik urtera ez da berrikuntza handiegirik nabari, izan ere 80. hamarkadan eman ziren aldaketa gehienak. «Orrazkeran ez, baina lan egiteko filosofian bai eman da aurrera pausu nabarmena, merkatua klasifikatu egin delako, hau da, jendeak badakiela non eta nola aukeratu nahi duena».

Ayerxa
merxeria
Arostegieta, 14
TOLOSA
Telf.: 943 674354

ORLA BOUTIQUE
Udazken-Neguko bilduma
Eskolapioak, 3
TOLOSA
Telf.: 943 67 44 17

Marcel
ILEAPAINDEGIKO ZABAIK
EDERGINTZA
Santa Klara, 9
TOLOSA
943 671930

Amaita
LENTZERIA
Leitza Kalea • Telf.: 943 67 07 84 • 20400 TOLOSA

MUGAR
Barruko Arropa
Nafarroa etorb., 16 • TOLOSA • 943 65 56 85

Labeaga, 45 • URRETXU • 943 72 90 35
inko
ZURE ARROPA DENDA
Erremetari, 38 • TOLOSA • 943 11 80 77

ARROPADENDA
UDAZKEN ETANEGUKO AZKEN TENDENTZIAK
B&B
Pablo Gorosabel, 17
TOLOSA
Telf.: 943 67 45 29